

AuzoEkin Tolosa (2025)

4 Eremua: Iparragirre-Bidebieta-Sputnik-Igaralde- Zabalarreta-Kondeko Aldapa



Lekua:

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola

Data:

2025eko urriaren 13a, astelehena. 18:00-20:00

Parte hartzaileak:

- **Auzokideak:** 29 pertsona
 - 11 emakume
 - 18 gizon
- **Udal teknikariak:** Garikoitz Lekuona, Gobernantza saileko teknikaria.
- **Dinamizazio taldea:** Garoa Gartzandia eta Oihan Martirena (Aise kooperatiba)

Sarrera:

AuzoEkin Tolosako Udalak sustatutako udal-estrategia bat da, auzoen garapen integrala eta orekatua bultzatu nahi duena, herritarren parte-hartze prozesu egituratu, inklusibo eta kolaboratzaile baten bidez. Proiektuak aldaketa metodologiko esanguratsua planteatzen du tokiko gobernantzan, Auzoetako Mahaia pixkanaka eredu zabalago eta sistematikoago batez ordezkatzuz, gogoeta kolektiboa, diagnostiko partekatua eta eremuen araberrako estrategien formulazioa bultzatuko dituen.

Prozesua lau fase nagusietan egituratuta dago: diseinu parte-hartzailea (0 fasea), beharren diagnostikoa (1 fasea), formulazio estrategikoa (2 fasea) eta inplementazioa eta jarraipena (3 fasea). Fase horietan, lurralde analisirako tresnak eta parte hartzeko metodologiak uztartzen dira, eta herritarrak nahiz udalerriko eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalak inplikatzeko dira.

Herritarren parte-hartzera irekia den saio hau 2. fasearen barruan kokatzen da, elkarrekin plangintza estrategikoaren formulazioa egiteko bidean. Planifikazio horrek datoen 5 urteetan zonalderako udal-politikak bideratzen lagunduko du.

Helburua:

Herritarrei diagnosi parte-hartzailearen emaitza nagusiak ezagutzera ematea eta hausnarketarako eta proposamenetarako gune kolektibo bat irekitzea, eremuaren garapen-estrategiaren parte izan daitezkeen erronkak, ideiak eta ekintzak jasoz.

Saioaren garapena:

Garikoitz Lekuona, udal gobernantza teknikariak hasiera eman zion saioari, dinamizazio taldea aurkeztuz eta prozesua, fasea eta helburuak kokatuz. Jarraian, Osoigok eta Ikertaldeak eremuan egindako diagnostikoaren emaitza nagusiak azaldu zituen, eta elkarriketarako tartea zabaltzeko, zalantzak eta galderak argitzeko.

Lehenengo galdera jada proposamen gisa jaso zen, pertsona batzuen deserosotasuna adierazten baitzuen eremu honi esleitutako izenarekin: Bidebieta, Iparragirre, Izaskun. Eremuko gainontzeko auzoetako parte-hartzaileak hobeto identifikatu daitezkeen beste batekin ordezkatzeko proposatu zen.

Udalaren aldetik auzotarren eskariei erantzun ezaren aurrean kexak eta erreklamazioak ere entzun ziren. Saioaren helburua eta prozesutik espero den emaitza azpimarratu ziren: 5 urterako zonaren plangintza eta herritarrek aukeratutako proiektu batzuk, 2026ko ekitaldirako aurrekontuetan zuzenean sartu beharrekoak.

Jarraian erabaki.tolosa.eus aurkeztu zen saiotik harago proposamenak egiteko gune digital gisa eta jada plataforman jasotako proposamen batzuk partekatu ziren.

Ondoren, Agenda Urbanoaren markoa eta Arlo Estrategikoak aurkeztu ziren, eta parte-hartzaileak 10 panelen inguruan banatu ziren aretoan talde txikietan. Panel horietan, arlo horietako bakoitzarekin batera diagnostikoan identifikatutako erronkak eta proposamenak agertzen ziren. Talde Eragileak aurretik egindako 30 proposamenak ere jasota zeuden panel horietan.

Une honetatik aurrera, saioaren errazleek parte-hartzaileak lagundu zituzten elkarriketa esanguratsuak izaten, erronkak identifikatzen eta eremuko alderdi bakoitzari buruzko proposamen zehatzak idazten.

Saioaren amaieran, parte-hartzea eskertu zen, saioan zehar izandako sententzioak labur partekatzeko gonbitarekin batera. Parte-hartzaileei ere agurra eman zitzaion, elkarriketekin jarraitzea eta erabaki plataformaren bidez proposamenak ekartzen jarraitzea animatuz.

Emaitzak:

- Iparragirre-Bidebieta-Sputnik-Igaralde-Zabalarreta-Kondeko Aldapa-ko 29 auzokideek 1. faseko diagnostikoaren laburpena jaso dute.
- 42 proposamen berri jaso dira saio honetan, Talde Eragileak aldeztu aurretik egindako 30 proposamenei eta diagnostikoan identifikatutakoei gehitzen zaizkienak.

Proposamenak

AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIOANIZTASUNA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE1.1	Zabalarreta: Berdegunea eta bioaniztasuna zainduko duena. Oreka bilatzea.	Proposamenean zehazten ez den Agenda Urbanotik jasotako erronka
AE1.2	Berdeguneak behar bezala zaintzea, adibidez: Zuhaitzak, belardiak.	3. saioan jaso.
AE1.3	Berdeguneen, ertzen eta ezponden kalitatea eta mantentze-lanak areagotzea.	Proposamenean zehazten ez den Agenda Urbanotik jasotako erronka

AE2. HIRI-EREDUA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE2.1	Hiriaren bizitasuna handitu erabileren arteko nahasketa eta beheko solairuen ber-aktibazioa sustatuz.	Proposamenean zehazten ez den Agenda Urbanotik jasotako erronka
AE2.2	Iparragirre kaleko 3. zenbakiko zatiaren estolderia eta espaloia berritu. Espaloia zabaldu. (Parte-hartzaile batek argazkiak eta azalpena ekarri ditu, eta adierazi du Udalaren esku-hartzeak ez direla nahikoak izan; euria egiten duenean kale zati hau oraindik inundatzen da).	3. saioan jaso.
AE2.3	Zabalarretan haurrentzako parke bat instalatu.	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.4	Zabalarretan argiztapena hobetu.	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.5	Zabalarretan komun publikoak jarri.	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.6	2024an Hirigintzako zinegotziarekin egindako jardueran Zabalarreta parkerako jasotako proposamen guztiak ekarri.	3. saioan jaso.
AE2.7	Bidebieta: Zumari handirako aldapan dagoen goroldioa garbitzea (malda arriskutsua, goroldioz, zuhaitzez eta jai-hondakinez betea...).	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.8	Herrikiderako igoera garbitu. Gaixo dauden zuhaitzak eta sasiak kendu, Escolapioetara igotzeko espaloia libre utziz.	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.9	Sputnik: kendu dagoen iturri apaingarria eta espazio hori komun publikoak jartzeko erabili.	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.10	Sputnik: adin guztietarako haurrentzako parke bat instalatu (oraingoa adin txikikoentzat soilik da).	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.11	Izaskun. Plaza eraberritzeko proiektu integrala egin (plazaren egonkortasun-arazoak: hormetan eta lurrean pitzadurak, oinarriaren desplazamendua, drainatze-falta... PROIEKTUA BEHAR DU).	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.12	Bidebietako transformadorea lurperatu (oso utzita dago, arriskutsua. Iberdrolaren ardura; Udalaren erreklamazioa).	Talde eragileak egindako proposamena.
AE2.13	Sputnik: argiztapen gehiegi dago. Berrikusi.	3. saioan jaso.
AE2.14	Sputnik: zuhaitza-iturria. Zuhaitz bat dago espaloi erdian.	3. saioan jaso.
AE2.15	Igaralde plazan estalitako gunek bat instalatu haurren eta gurasoen erabilerarako.	3. saioan jaso.

AE2.16	Garbitzaile aldaketa: katuen eta txakurren gorotzen garbiketa.	3. saioan jaso.
AE2.17	Animalien elikadura – katuak (Izaskun).	3. saioan jaso.
AE2.18	Arratoiak – Iparragirre 2: sustraien artean kabia.	3. saioan jaso.
AE2.19	Kondeko aldapa 18 - Txintxeak	3. saioan jaso.
AE2.20	Izaskun: labezomorro izurria hainbat blokeetan. Udala jakinaren gainean dago.	Talde eragileak egindako proposamena.

AE3. ALDAKETA KLIMATIKOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE3.1	Zabalarretako parkea klima-babesleku eta ingurumen-heziketarako gune gisa birgaitzea, eta, horretarako, itzalguneak, askotariko zuhaitzak, ur-iturriak, zoladura iragazkorak eta atsedenguneak integratzea.	3. saioan babestutako proposamena
AE3.2	Korridore Berdeen eta Espazio Iragazkorren Sarea sortzea, biodibertsitatearen, erregulazio termikoaren eta oinezkoen mugikortasunaren euskarri gisa Zabalarreta, Izaskun eta Bidebieta lotuz.	3. saioan babestutako proposamena
AE3.3	Argiteria publikoan eta hiri-zerbitzuetan energia-eraginkortasuneko irizpideak aplikatzea, luminarien ordezkudeaketa adimenduneko LED teknologia erabiliz.	3. saioan babestutako proposamena

AE4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE4.1	Mantentze Lan Prebentiborako eta Garbiketa Parte-hartzailearako Plana garatzea, udal-ekintza eta herritarren ardura partekatua uztartuko dituen, altzarien, zoladuren eta argiztapenaren kontserbazioa bermatuz.	3. saioan babestutako proposamena
AE4.2	Ingurumenarekiko sentsibilizazio eta erantzukizun partekatuko programak garatzea, jasangarritasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko kanpainak, herritarren prestakuntza eta lankidetzaproiektuak integratuz.	3. saioan babestutako proposamena
AE4.3	Edukiontzia ez dira pedalarekin irekitzen Igaralden. Espaloiko zintarriarekin (pedalak) jotzen duelako	3. saioan jaso.

AE5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE5.1	Izaskun auzoko bizikletak lotzeko gunea, iturriaren ondoan dagoena, beti beteta egoten da. Askotan bizikleta zaharrak egon ohi dira bertan eta martxan dauden bizikletak lotzea oztopatzen dute. Gune hori bera luzatzeko aukera dago bertan eta hala egitea asko eskertuko nuke.	Erabaki Tolosa
AE5.2	Igaralde kalea: margotu eta aparkalekuak mugatu, trafiko-seinale bertikal eta horizontalak jarri.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.3	Igaralde kalea: abiadura murrizteko neurri fisikoak jarri.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.4	Igaralde kalea: asfaltatu.	Talde eragileak egindako proposamena

AE5.5	Igaralde kalea: arrapalak egin irisgarritasuna bermatzeko.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.6	Igaralde kalea eta IP3ren arteko bidegurutzea: zebraidea goratu.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.7	Igaralde kalea: EPA ondoan dagoen autobus-geltokia aldatu. Gaizki kokatua dago, gurpil-aulkientzako eta haurren kotxetxoentzako arrapalak hormarekin jotzen du, eta markesina falta da.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.8	Zabalarreta Igaraldeko norabidean: bizikletentzako aparkalekua jarri.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.9	Bidebieta (Igaralde): bizikleta-aparkalekua jarri autobidearen ondoko parkingean.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.10	Urrutixoko aldapa: margotu eta behar bezala seinalizatu. Gainera, kalearen goikaldeko aparkalekuak kendu.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.11	Urrutixoko aldapa: Bidegurutzeko aparkalekua kendu. Istripu-arriskua dago, hiru norabide elkartzen dira, eta bigarren zirkulazioa erreia kendu zen PGC-tik Iparragirre auzora	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.12	Urrutixoko aldapa: ispilua jarri Kondeko aldapako bidegurutzean, ikuspenik ez dagoelako Kondeko aldapatik ateratzean.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.13	Tanatorioko aldapan / Sputnik / Iparragirre: bolardoak jarri edo espaloia murriztu, autoek gainean aparkatzea saihesteko, bereziki eskola ordutegian.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.14	Kondeko aldapa: segurtasuna eta irisgarritasuna hobetu oinezkoentzat. Bereziki ezker aldeko espaloiak zabalera minimoa du.	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.15	Kondeko aldapa: neurriak hartu autoek espaloietara igotzea eragozteko	Talde eragileak egindako proposamena
AE5.16	Kondeko aldapa 16 eta 18: autoen zirkuitua. Anbulantzia eta larrialdi zerbitzuak ezin dira pasa.	3. saioan jaso.
AE5.17	Mojoi bat gehitu anbulantziak pasa ahal izateko.	3. saioan jaso.
AE5.18	Igaralde: pivoteak eta "ez aparkatu" seinalea jarri plazan eta araua bete dadin bermatu.	3. saioan jaso.
AE5.19	Igaralde: larrialdi-zerbitzuentzako gunea. Ez aparkatu eta libre utzi.	3. saioan jaso.
AE5.20	Autobus-geltokia – markesina – desgaituentzako egokitzapena.	3. saioan jaso.
AE5.21	Bizilagunentzako OTA. Galibo-kontrola. Igaralde: erabateko aparkalekuen KO dugu.	3. saioan jaso.
AE5.22	Urrutixoko aldapa: noranzko bakarreko trafikoa ezarri.	3. saioan jaso.
AE5.23	Kondeko aldapa: abiadura murriztu eta zebraidea gehiago jarri.	3. saioan jaso.
AE5.24	Goiko parkingean galibo-muga eta bizilagunentzako erreserbak ezarri gaueko ordutegian.	3. saioan jaso.
AE5.25	Bizilagunentzako aparkaleku-eremu eskusiboak ezarri.	3. saioan jaso.
AE5.26	Aparkalekuen udal-zaintza eta kontrol handiagoa.	3. saioan jaso.
AE5.27	Kondeko aldapa: eremuaren irisgarritasuna hobetu. Ibaiarekin lotura desagokia da, ez sakramentinoetatik, ez Berazubiko eskaileren bidez (papeleroak). Sakramentinoen jaitsiera desagokia da; posible litzateke igogailuak edo eskailera/arrapala mekanikoak jartzea aipatutako punturen batean.	Talde Eragileak egindako proposamena.
AE5.28	Arrapala mekanikoa Berazubira, Sakramentinoetatik.	3. saioan jaso.
AE5.30	Igogailua Berazubitik.	3. saioan jaso.

AE6. GIZARTE-KOHESIOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE6.1	Izaskun auzoko jaiak berreskuratzea. 2020. urtean galdu ziren jaiak berreskuratu nahi nituzke. Lantalde bat sortuko balitz gustura hartuko nuke parte bertan.	Erabaki Tolosa
AE6.2	Adinekoei arreta emateko proiektu bat garatzea. Ez da nahikoa. Duela hilabete batzuk bazirudien proiektu bat zegoela, baina ezerezean geratu zen.	Talde Eragileak egindako proposamena.
AE6.3	Gazteentzako / haurrentzako espazio eza. Kultur lokala / EPA / Otsabio.	Talde Eragileak egindako proposamena.
AE6.4	Eremuaren izena aldatu. Auzo batzuk ez dira aipatuak sentitzen.	3. saioan jaso.
AE6.5	Ekintzak antolatzeke lokal sozial bat lortzea	3. saioan jaso.
AE6.5	Denbora-banku bat ezartzea.	3. saioan jaso.
AE6.6	Belaunaldien arteko jarduerak antolatzea	3. saioan jaso.
AE6.7	Helduen eskola estalitako topaleku gisa erabiltzea	3. saioan jaso.
AE6.8	Antolatutako Auzo elkarte bat behar da, lokal propio bat izango duena, udalarekiko komunikazioa bideratzeko	3. saioan jaso.
AE6.9	Igaralde. Gorrotxategik erabiltzen zuen lokala. Bizilagunek erabil dezakete.	3. saioan jaso.
AE6.10	Sputnik. Gaueko erabilera arautzea eta arauak betetzera behartzea	3. saioan jaso.
AE6.11	8 eta 10 urte bitarteko haurrentzako jarduerak antolatzea naturan. (Espazio propioa ez duen adina da eta horrek bizikidetzaren arazoak sortzen ditu. Ez dituzte kolunpioak behar, bidelagunak baizik)	3. saioan jaso.
AE6.12	Zabalarreta. Gazteentzako natur jarduerak antolatzea	3. saioan jaso.
AE6.13	Zabalarreta. Parkea txukuntzea. Txakurrak lotu gabe ez eramateko seinalea errespetatzea.	3. saioan jaso.
AE6.14	Txakurrentzako leku egokiak. Adibidez: tanatorio aurreko parkean. Arauak errespetatzeko neurriak jartzea.	3. saioan jaso.
AE6.15	Txakurrak Zabalarreta parkean lotuta eramatera behartzea, eta espazio itxi bat jartzea, askatu ahal izateko.	3. saioan jaso.

AE7. EKOIZPEN EREDUAK ETA HIRI-EKONOMIA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE7.1	Merkataritza falta da. Elikadura jardura gutxi. Farmazia, okindegia, bi taberna, ile-apaindegiak. supermerkatu bat tanatorioko lokalean? telefonikaren eraikina?	Talde Eragileak egindako proposamena.
AE7.2	Udalaren laguntzak eta administrazio-eraztasunak auzoan negozio txikien ekintzaileentzako.	3. saioan jaso.

AE8. ETXEBIZITZA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE8.1	Izaskun auzoko etxebizitzak saneatu.	3. saioan jaso.

AE9. TRANTSIZIO DIGITALA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea

AE10. TRESNAK, GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE10.1	Sputnik. Protokoloak komunitateetan eta suhiltzaileentzat. Sute-arriskua dagoenean, eraikinen altuera... Suhiltzaileen sarbidea eta zerbitzua / larrialdi-zerbitzuak. Auzotarren jarduna.	Talde Eragileak egindako proposamena.
AE10.2	Udaleko arloen arteko koordinazioa. ORAIN!	3. saioan jaso.
AE10.3	Udalak sistema bat behar du herritarren arazoei erantzuteko.	3. saioan jaso.
AE10.4	Herritarren kexak / proposamenak uzteko plataforma digital bat. Eta epe baten barruan erantzutera behartu	3. saioan jaso.